

## HURRENGO ZENBAKIAN

### EUSKALDUNTZEA

## Hizkuntza erabilerak ematen du gaitasuna

"Elebiduna izateko, bi hizkuntzak txikitatik ikasi behar dira etxean? Zer da elebiduna izatea?" Bi hizkuntza (edo gehiago) erabiltzen duen edonor da elebiduna. Baina bizitzan, eta, are gutxiago, zientzian, ez dago erantzun errazik onartzen duen galderarik. Euskara eskolan edo euskaltegian ikasi duten lagun gehienentzat errazagoa da gazteleraz hitz egitea euskaraz hitz egitea baino. Eguneroko bizitza batez ere euskaraz egiten dutenek pareko gaitasuna lortuko dute bi hizkuntzetan, eta, agian, euskaraz gazteleraz baino erosoago aritzera ailegatuko dira. Baina horretarako gakoa erabilera da.

### EZTABAIDA

## Bidesariak, edo zerga erantsia, garraiolarien iritziz



Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko diputatuak honako proposamen hau aurkeztu zuen Bizkaiko Batzar Nagusietan: erabileragatiko ordainketa-sistema bat martxan jartzea, 3,5 tonatik gorako kamioi handiak ahalmen handiko bideak erabiltzera bultzatzeko. Etorkizuneko mugikortasunerako bidean, Foru Aldundiaren iritziz, "urrats erabakigarria" izan daiteke Bizkaiarentzat, bai garraioa deskarbonizatze baina trantsizio ekologikorako Europako politika aurreratuenen ildoarekin bat egiteko ere. Zer diote garraiolariak?



### IKT

## Tik Tok EZ da haurrentzat

TikTok bideo laburretan oinarritzen den sare sozial bat da. Ez da haurrentzat, eta sare sozial guztiek bezala, arrisku asko ditu adin txikikoentzat zein helduentzat, erabilera edozein izanda ere. Beraz, 15 urte baino gehiago izatea gomendatzen da aplikazio hau gurasoen gidaritzarik gabe erabiltzeko.

### HORIEK ETA BESTE HAINBAT ARTIKULU INTERESGARRI

Pertsonaia- **Ane Mintegi, tenis jokalaria**

Normalizazioa- **Euskararen familia bidezko transmisioa**

Giza baliabideak- **Lankidetzan mundua irauli nahian**



# URRIAN

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autnomoduna  
Organismo Autónomo de  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**